Mikeleteen kaboa, 47 urte zituela Zumaiaren defentsan parte hartu zuen, Gipuzkoako Aldundiaren aginduak jarraituz Bizkairantz atzera egin zuen arte. Atxilotu ondoren, gerra-kontseilua egin zitzaion Santanderren, 1937ko urriaren 14an, “matxinadari laguntza ematea” delitua leporatuta. 1938ko uztailaren 5ean, 23. epaitegi militarrek erabaki zuen “*kausa hau behin-behinean artxibatzea EULALIO AZPEITIA ORBEGOZO... auzipetuaren alde...Behin betiko askatasun-egoeran geratuko da, jarduketak Exekuzioen Epaille Militarri emango zaizkio, berri emateko, betearazteko, prozesatuak askatzeko eta testigantzak batzeko eta, ondoren, Informazio zerbitzuari bidaltzeko*”.

Con 47 años y cabo de Miqueletes, tomó parte en la defensa de Zumaia hasta el momento en que se replegó hacia Bizkaia siguiendo las instrucciones de la diputación de Gipuzkoa. Una vez capturado, se le abrió un consejo de guerra en Santander el 14 de octubre de 1937, siendo acusado de un delito de “auxilio a la rebelión”. El 5 de julio de 1938 el Juez Militar núm. 23 decretaba el “*sobreesimiento provisional de la presente causa en favor del procesado... EULALIO AZPEITIA ORBEGOZO... Quien quedará en situación de libertad definitiva, pasando las actuaciones al Juez Militar de Ejecuciones, a los fines de notificación, cumplimiento, libertad de los encartados y unión de testimonios y después, al servicio de Información a los efectos pertinentes*”.

197. AZPEITIA ORBEGOZO, LUIS

Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen Mikeleteekin. / Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco formando en los Miqueletes.

198. AZPEITIA ORBEGOZO, SOTERO

Lanbidez mekanikaria; zinegotzi errepublikanoa izan zen 1931n. Ardura Politikoen legea oinarri hartuta auzipetu zuten eta, 1941eko abenduaren 24an, 1.500 pezetako isun ekonomikoa jarri zioten.

Mecánico de profesión, de filiación republicana, fue concejal republicano en 1931. Procesado por la ley de Responsabilidades Políticas, fue condenado el 24 de diciembre de 1941 a una sanción económica de 1.500 pesetas.

199. AZPEITIA ZUBIMENDI, IGNACIO

1941eko deialdiko mobilizatua. Lanbidez moldatzailea, 20 urterekin gudulari erreketek sartu zen San Ignacio Tertioko 2. konpainian, Txapel Gorrien graduazioarekin. 21 urte zituela, José María Echave Udave, José María Alcorta Urbistondo, eta Manuel Prieto Osa lagunekin batera, Frantziara joatea erabaki zuen. Zugarramurdin atxilotu zituzten laurak, muga zeharkatu nahian zebiltzala, hiru soldaduen baimena amaitu ondoren:

“KONTUAN HARTUZ laugarren prozesatuak oraindik soldaduska ez duela egin, atzerrira ihes egiteko saiakera ezin da desertzio delitutzat hartu, matxinadari laguntzeko saiakeratzat baizik, Justizia militarren araudiko 240. artikuluko

or.

1. paragrafoan (237.aren lotura duena) aurreikusia eta zigortua dagoena, eginkizun militarrek betetzeari uko egiteko gertaerak matxinatuei laguntzearen hastapena izan zirelako. Ángel Segaz Zubeizu jaun alfereza, 10. epaitegi militarren esanetara.”

1939ko uztailaren 28an urtebeteko atxiloaldi txikira zigortu zuten; gainera, kondenan zehar kargu guztiak eta sufragio-eskubidea eten zizkioten.

Movilizado del reemplazo de 1941. Con 20 años de edad y moldeador de profesión fue combatiente requeté, con la graduación de Boina Roja, destinado en el Tercio de San Ignacio, 2ª compañía. A los 21 años, junto con sus compañeros José María Echave Udave, José María Alcorta Urbistondo, Manuel Prieto Osa e Ignacio Azpeitia Zubimendi, (este último, aún no movilizado) decidió marchar a Francia. Fueron detenidos los cuatro en Zugarramurdi cuando intentaban atravesar la frontera, una vez expirado el permiso de los tres soldados. Respecto a Ignacio Azpeitia, la sentencia señalaba que:

CONSIDERANDO que no habiendo aún ingresado en filas el cuarto procesado, su intento de evasión al Extranjero no pudo constituir delito de desertión sino una tentativa del de auxilio a la rebelión previsto y penado en el párrafo 1 del artículo 240 en relación con el 237 del código de Justicia militar porque los hechos realizados para sustraerse del cumplimiento de sus deberes militares fueron un principio de colaboración con los rebeldes. A disposición de Juzgado Militar N 10, Alférez Don Ángel Segaz Zubeizu.

Sería condenado el 28 de julio de 1939 a la pena de un año de prisión menor con la accesoria de suspensión de todo cargo y del derecho de sufragio durante la condena.

200. AZPILLAGA ZUBIA, JOSÉ MARÍA

Gerraren aurretik ezagunak ziren haren kideasun politikoak tradizionalismoaren afiliatua izanik. 18 urterekin boluntario erreketekete izena eman zuen. 1937ko ekainaren 3an, zauritu egin zuten Durango-Zornotza frontean, eta Gasteizko seminarioan ospitaleratu zuten pronostiko arinarekin; geroago, Iruñeko ospitalera eraman zuten. Gerra ondoren, Falange tradicionalista y de las JONSeko gudulari ohia izanik, Alderdi Tradizionalistako diruzain agertzen da.

Antes de la guerra ya había mostrado sus simpatías políticas como afiliado al tradicionalismo. Se alistó como voluntario requeté con 18 años de edad. Herido en el frente de Durango-Amorebieta el 3 de junio de 1937, fue hospitalizado en el seminario de Victoria con pronostico leve, siendo más tarde trasladado al Hospital de Pamplona. Tras la guerra, en su calidad de excombatiente de la Falange tradicionalista y de la JONS, aparece como tesorero del Partido Tradicionalista.

201. AZURZA MUGICA, JOSEFA

Lanbidez ebanista; 57 urterekin Zumaiatik kanporatu zuten Telesforo Beristain (lanbidez enplegatua) senarrarekin eta Mari Cruz, Carmen eta Remesar seme-alabekin batera, erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

De 57 años de edad ebanista de profesión, fue expulsada de Zumaia, junto con su esposo Telesforo Beristain, empleado de profesión, y sus hijos Mari Cruz, Carmen y Remesar, por no ser afectos al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

B

202. BÁRBARA SUÁREZ, ANTONIO

Milizietara igorrita mobilizatu zuten. / Fue movilizado, siendo destinado a las milicias.

203. BARRENCHÉ MENDIA, JULIÁN

Geltoki-mutil baimendua, kaleratu egin zuten garbiketaprozesu batean. / Mozo autorizado de estación, fue despedido en una depuración.

204. BARRENCHÉ MENDIA, MIGUEL

Geltoki-mutila, kaleratu egin zuten garbiketaprozesu batean. / Mozo de estación, fue despedido en una depuración.

205. BARRENECHEA AZURMENDI, MIGUEL

1932an Eusko Langileen Taldeko Zenbait Lanbide Saileko presidentea. Zumaiatik ihes egin zuen tropa frankistak sartzeaz zirela, eta ezin izan zuen itzuli 1938ko maiatzaren 23a arte; Zumaiako ordezkaritza militarrek "gorrien aldetik etorria" sailkatu zuen.

Presidente en 1932 de la Agrupación de Obreros Vascos (sección Varios Oficios). Abandonó Zumaia ante la toma de la villa por los franquistas y no pudo volver hasta 23 de mayo de 1938, siendo clasificado por la delegación militar de Zumaia como "procedente del campo rojo".

206. BASURTO QUEREJETA, PEDRO

1936ko uztailaren 30ean, tropa matxinatuek atxilotu egin zuten eta behin-behineko atxiloaldia ezarri zioten San Kristobal gotorkeluan; gerra-kontseilu guztiz sumarioa egin zioten matxinada militar delituagatik, Iruñeko Behin-behineko Instrukzio Epaitegian.

Auzibide-agirietan esaten denez, Etxarri-Aranazko Guardia Zibilaren postuko komandanteak tribunalen eskuetan jarri zituen Pedro Basurto eta beste herritar bat "Beasaingo borrokaldiaren ostean armekin atxilotu ondoren"; une hartan ataundarrak ziren biak. Froga eta testigantza moduan atxiki zituzten "atxilotuetako bati hartutako errebolberrera, eta Ataungo alkateak eta herri horretako Zirkulu Tradizionalistak egindako ziurtagiriak". Alkateak bere idatzian argitzen zuen Basurto "jaiotzez zumaiarra", "Urcuola izeneko etxean" bizi zela, lanbidez "jornalaria eta hemeretzi urtekoa", ezkongabea eta jokabide onekoa zela. Uztailaren 30ean bertan, aitorpena hartu zitzaion Pedro Basurtori; lanbidez "okina" zela zioen, eta horrela kontaktzen zuen gerra hasieratik izandako ibilbidea:

"Hilaren hogeita batean, goizeko zortzietan, José Apaolaza 'Mataregito'k eta soilik Gabriel izena duela dakien beste batek lagunduta, Eibarrera joan ziren boluntarioki armak hartzera; hango etxe batean igaro zuten gaua, Donostiara itzuli ziren eta hilaren hogeita seiko arratseko seiak arte egon ziren eta kotxe txiki batean Ordiziara joan ziren, José Apaolaza, ezagutzen ez dituen beste bi eta bera, laurak armatuta; egun berean itzuli ziren Donostiara, eta handik irten ziren berriz Ordiziarantz hilaren hogeita zazpiko seietan eta hamarrek aldera iritsi ziren eta izendatutako etxe batera joan zirela; noizean behin aire-ra baino ez duela tiro egin eman zieten armarekin, baina inoiz ez indar batzuen aurka; eskopeta etxearen jabeari utzi ziola Lazkaora joatea erabaki aurretik, eta han atxilotu zutela. Ez duela inoiz bere armarik eduki. Eusko Langileen Alkartasunako afiliatua dela, ez dakiela ezer gerra-egoera adierazita dagoenari buruz eta ez duela beste ezer esateko."

Abuztuaren 10ean, zuzemenak amaitutzat eman zituen epaile militarrek eta abuztuaren 22an "heriotza-zigorrrera" kondenatu zuten; "Estatuaren, korporazioen eta matxinadak kaltetutako partikularren esku izango dira kondenatuen ondasunen aurka dagozkien akzio zibilak". Irailaren 2an erabaki zuten exekuzioa hurrengo egunean izango zela, goizeko 6etan, "Iruñeko Gazteluko Ingurubidea eta Laguntza Atea deritzon tokian", eta auzibide-agirian zehazten da:

"Ekitaldi hori Justizia Militarreko 637. artikuluan ezarritako moduan egingo da eta han izango da Garnizioaren, Guardia Zibilaren eta Karabineroen sail bana, Erreketeen eta Falange Espainiarraren konpainia bana; azken talde horretako Eskuadra bat arduratuko da epaia betetzeaz. Indar horiek guztiak 5:30etan bilduko dira Ingeniarren Kuartelaren aurreko zabalgunean. Sail bakoitza ofizial baten agindupean joango da. Indar guztien agintea izango du karabineroen komandantziako komandantea, Salvador Sánchez Duart jauna."

Mediku kapitainak egiaztatu egin zuen, 1936ko irailaren 3an, fusilamendu bidezko exekuzioa; Pedro Basurto Iruñeko hilerriko "bosgarren koadroko, seigarren lerroko, hemeretzigarren hobian" lurperatzea, heriotza heriotzen erregistroan jasotzea eta familiari jakinaraztea agindu zuten.

El 30 de julio de 1936 fue capturado por las tropas sublevadas, puesto en prisión preventiva en el fuerte de San Cristóbal y enjuiciado en un Consejo de Guerra sumarísimo por un delito de rebelión militar en el Juzgado Eventual de instrucción de Pamplona. Según relatan los autos, el comandante del puesto de la Guardia Civil de Echarri-Aranaz había puesto a disposición del tribunal a Pedro Basurto y otro ciudadano, en aquel momento vecinos de Ataun, tras haber sido "hechos prisionero con armas después del combate de Beasain". Se adjuntaban como pruebas y testimonios "un revólver recogido a uno de los detenidos y certificados expedidos por el Alcalde de la Villa de Ataun (Guipúzcoa) y otro del Círculo Tradicionalista de dicha ciudad". El alcalde aclaraba en su escrito que Basurto, "natural de Zumaia", residía en la "casa llamada Urcuola", de profesión "jornalero, de diecinueve años de edad", soltero y de buena conducta.

El mismo día 30 le fue tomada declaración a Pedro Basurto, que declara ser de oficio "panadero" y relata de este modo su actuación desde el inicio de la guerra:

Que el día veintiuno a las ocho de la mañana, acompañado de José Apaolaza, del apodado el Mataregito y de otro del que solo sabe se llama Gabriel fueron como voluntarios a Eibar para armarse, donde en una casa grande que no conoce les entregaron a cada uno una escopeta de dos cañones del doce y cinco cajas de municiones de perdigón del circo, yendo a Beasain y de este pueblo a Tolosa donde durmieron, continuando la marcha el veintidos a San Sebastián, yendo después a Hernani donde pasaron la noche, regresando a San Sebastián y permaneciendo en dicha capital durante la diez y ocho horas del veintiséis que en un coche pequeño marcharon a Villafranca, José Apaolaza, otros dos que no conoce y ellos cuatros armados, regresando el mismo día a San Sebastián, de donde salieron nuevamente a las seis horas del veintisiete para Villafranca a donde llegaron sobre las diez marchando a una casa que les habían designado, que solo ha disparado algunas veces al aire con el arma que les habían entregado pero no contra unas fuerzas dejando la escopeta al dueño de la casa antes de decidirse a ir a Lazcano donde fue detenido. Que no ha tenido arma propia nunca. Que está afiliado a Solidarios Vascos, que no sabe nada respecto a la declaración del estado de guerra y que no tiene nada más que exponer."

El diez de agosto el juez militar decreta el fin de las diligencias, siendo sentenciado el 22 de agosto "a la pena de muerte", reservando "a favor del Estado, Corporaciones y particulares damnificados por la rebelión, las acciones civiles que les competan contra los bienes de los condenados". El 2 de septiembre se decreta que la ejecución tendrá lugar el día siguiente, a las 6 horas de la mañana, "en la denominada Vuelta del Castillo y Puerta de Socorro" de Pamplona", señalándose en el auto que:

Este acto tendrá lugar en la forma dispuesta en el artículo 637 del código de Justicia Militar y a él asistirán una Sección de cada uno de los Cuerpos de la Guarnición, Guardia Civil y Carabineros, una compañía de Requetés y otra de Falange Española, quedando encargada de ejecutar la sentencia una Escuadra de esta última Agrupación. Todas estas fuerzas se encontrarán a las 5'30 en la explanada frente al Cuartel de Ingenieros. Las secciones irán mandadas por un Oficial cada una de ellas. Mandará las fuerzas el comandante de la comandancia de carabineros don Salvador Sánchez Duart."

El capitán médico certificó el 3 de septiembre de 1936 la ejecución por fusilamiento, siendo enterrado Pedro Basurto en el cementerio de Pamplona, "cuadro número cinco, línea seis, fosa diez y nueve", dándose orden de inscribir la muerte en el registro de defunciones y comunicársela a la familia.

207. BASURTO ZABALA, JOSÉ

Lanbidez peoia, Solidaridad de Obreros Vascos-eko afiliatua. Lanbidez kale-garbitzailea, kargutik kendu zuten ardura politikoengatik. Peón afiliado a Solidaridad de Obreros Vascos. Barrendero de profesión, fue cesado por motivaciones políticas.

or.

208. BEGUIRISTAIN, JESÚS

UHPko afiliatua, Gerra Zibilean boluntario parte hartu zuen Eusko Gudarosteko Bala Roja batailoian. / Afiliado a la UHP. Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco en el batallón Bala Roja.

209. BELAUSTAGUI BENGOA, JULIANA

39 urte zituela Zumaia kanporatu zuten, erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren. Espetxera zigortu zuten atxilotu zutenean. 1940ko apirilaren 13ko gerra-kontseiluak zigorra behin-behinean artxibatzea proposatu zuen, "leporatzen zaizkion gertaerek ez dutelako garrantzia penalik, testigantza bete, jakinarazi eta igorri dadin". Une horretatik, behin betiko askatasun-egoeran geratu zen, 1938az geroztik espetxean baitzegoen.

A la edad 39 años fue expulsada de Zumaia por no ser afecta al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia. Sera condenado a prisión un vez capturada. El 13 de abril de 1940 el consejo de Guerra propondrá el sobreseimiento provisional del castigo por "carecer de relevancia penal los hechos que se le imputan para cumplimiento, notificación y remisión de testimonio". Quedó en situación de libertad definitiva desde ese momento, si bien llevaba en prisión desde 1938.

210. BEOBIDE GALLARTA, JUAN MARI

Apaiz zumaiair honek Irunen ziharduen eta Frantzia erbesteratu zen. Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen Prieto batailoian. Gerra ostean, Frantzia erbesteratu zen eta Gurseko kontzentrazio-esparruan amaitu zuen.

Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco formando en el batallón Prieto. Después de la guerra, se exilió en Francia, terminó en el campo de concentración de Gurs.

211. BEOBIDE GOIBURU, JULIO

Ideologiaz abertzalea, erregimenaren aurkarizat jo zuten eta, horregatik, ondasunak desjabetu zizkieten. Urte batzuk geroago, eskulturagile hau aukeratu zuten Erorien Haraneko Gurutzea egiteko, Ignacio Zuloaga Zamora margolariaren enkarguz; honek, era berean, Francisco Francoren mandatua jaso zuen.

De ideología nacionalista vasca, quedó señalado como desafecto al régimen por lo que le expropiaron sus bienes. Años más tarde este escultor fue elegido para realizar la Cruz tallada del Valle de los Caídos por encargo del pintor Ignacio Zuloaga Zamora, que a su vez había recibido el encargo de Francisco Franco.

212. BEOBIDE ZENDOIA, LÁZARO

Irrati-telegrafista eta telefonista 1931n. Gerra ostean, Frantzia erbesteratu zen eta Gurseko kontzentrazio-esparruan amaitu zuen./ Radiotelegrafista y telefonista en 1931. Después de la guerra se exilió en Francia, terminó en el campo de concentración de Gurs.

213. BERASATEGUI CENDOYA, EUGENIO

Erbesteratua, Eresoinka Taldeko kidea izan zen. 1937an Rafael Picavea Leguinak, Eusko Jaurlaritzaren Pariseko ordezkariatzako arduradun batek, sortu zuen Eresoinka, folklorearen bidez nazioarteko komunitateari "faxismoak menderatua izaten ari zen euskal herri katoliko eta tradizionalaren" egoera erakusteko.

Exiliado, fue integrante del Grupo Eresoinka, creado en 1937 de la mano de Rafael Picavea Leguina, uno de los responsables de la delegación del Gobierno Vasco en París con intención de mostrar mediante el folclore a la comunidad internacional la situación del "pueblo vasco católico y tradicional que estaba siendo sometido por el fascismo".

214. BERISTAIN ALDALUR, JOSÉ ANTONIO

Erregimenaren aurkarizat jo eta, 1938ko ekainaren 5ean, 21 urte zituela, exekutatu egin zuten Zumaian. / Quedó señalado como desafecto al régimen, por lo que fue ejecutado en Zumaia el 5 de junio de 1938 a los 21 años de edad.

215. BERISTAIN ARTECHE, MAGDALENA

25 urte zituela Zumaia kanporatu zuten Jesús eta María Zalla Beristain seme-alabekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zituzten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A los 25 años de edad fue expulsada de Zumaia junto con sus dos hijos Jesús y María Zalla Beristain, por no ser la familia afecta al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

216. BERISTAIN AZURZA, CARMEN

16 urte zituela Zumaia kanporatu zuten Telesforo Beristain Zubia aitarekin, Josefa Azurza Mugica amarekin eta Remesar eta María Cruz ahizpekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren. Ezin izan zuen 1938ko maiatzaren 23a arte itzuli; Zumaia ordezkaritza militarrek "gorrien aldetik etorria" sailkatu zuen.

A la edad de 16 años fue expulsada de Zumaia, junto con su padre Telesforo Beristain, su madre Josefa Azurza Mugica y sus hermanas María Cruz y Remesar, por no ser la familia afecta al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia. No pudo volver hasta el 23 de mayo de 1938, siendo clasificada por la delegación militar de Zumaia como “procedente del campo rojo”.

217. BERISTAIN AZURZA, MANUEL

Lanbidez bulegaria; ideologiaz abertzalea; Gerra Zibilean parte hartu zuen Eusko Gudarosteko Itxarkundia batailoian. Tropa frankistek atxilotu zuten, eta gerra-kontseilu guztiz sumarioa egin zion Bilboko Gerra Ikuskaritza Bereziak. Tribunalak frogatuzat eman zuen Manuel Beristainek, urteetan zehar “batzokiko laguntzaile sutsua izan zela, hango kide eta propagandista baitzen”, gerra hasi zenean “zaintzak eta gainerako zerbitzuak egin zituela Frente Popularreko pertsonekin, eta bere ardurapean izan zuen Immigrazio eta Emigrazio bulegoa hemen [Zumaia], eskuindarrei hemen bahitutako materialarekin; ihes egitean, berekin eraman zituen idazmakinak eta idazmahaiko gainerako gauzak, eta Armada Nazional Loriautsua sartu zenean, Bizkairantz aldentu zen”.

Han “etsaien armadan izena eman zuen, eta partaide izan zen tropa nazionalek atxilotu eta, behar bezala sailkatu ostean, langileen batailoia batera igorri zuten”. “Jokabide moral onekoa” dela onartu arren, 10 urte eta egun bateko zigorra ezarri zioten 1938an, “matxinadari atxikimendua” delituagatik. Escollerako (Ferrol) espetxean sartu zuten, eta handik, 1941eko urtarrilaren 8an, hiri bereko armategira eraman. 1941eko maiatzaren 15ean baldintzapeko askatasunean jarri zuten eta Zumaian bizitzeko baimena eman zioten. 1954an, aurrekari penalak ezerezteka eskatu zuten.

Oficinista de profesión y simpatizante del nacionalismo, tomó parte en la Guerra civil alistado en el Eusko Gudarostea. en el Batallón Itxarkundia. Capturado por las tropas franquistas, fue sometido a un consejo de guerra sumarísimo por la Auditoría Especial de Guerra de Bilbao. El tribunal consideró hechos probados que Manuel Beristain, que durante años había sido “colaborador entusiasta del batzoki, siendo socio del mismo y propagandista”, tras el inicio de la guerra “hizo guardias y demás servicios a los elementos confabulados con el F. I. y tuvo a su cargo la oficina de Inmigración y Emigración en ésta [Zumaia] con material requisado a derechistas de ésta, llevándose en su huida máquinas de escribir y demás objetos de escritorio, ausentándose ante la entrada del Glorioso Ejército Nacional hacia Vizcaya”. Allí se encuadró “en las filas del ejército enemigo, del que formó parte hasta que hecho prisionero por las Tropas Nacionales fue debidamente clasificado y destinado a prestar servicios en un Batallón de Trabajadores”. A pesar de reconocer que es “de buena conducta moral”, fue condenado en 1938 a la pena de 10 años y un día por el delito de “adhesión a la rebelión”. Ingresó en la prisión de la Escollera, en El Ferrol, pasando el 8 de enero de 1941 al Depósito del Arsenal en la misma ciudad. El 15 de mayo de 1941 fue puesto en libertad condicional, siendo autorizado a residir en Zumaia. En 1954 solicitó la cancelación de los antecedentes penales.

218. BERISTAIN AZURZA, MARÍA CRUZ

27 urte zituela Zumaiaetik kanporatu zuten Telesforo Beristain Zubia aitarekin, Josefa Azurza Mugica amarekin eta Remesar eta Carmen ahizpekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 27 años fue expulsada de Zumaia, junto con su padre Telesforo Beristain, su madre Josefa Azurza Mugica y sus hermanas María Cruz y Remesar, por no ser la familia afecta al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

219. BERISTAIN AZURZA, JOSÉ LUIS

Eusko Gudarostean izena eman zuen eta Saseta batailoira igorri zuten.

Se alistó en el Ejército Vasco, en el batallón Saseta.

220. BERISTAIN AZURZA, REMESAR

9 urte zituela Zumaiaetik kanporatu zuten Telesforo Beristain Zubia aitarekin, Josefa Azurza Mugica amarekin eta Carmen eta María Cruz ahizpekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 9 años fue expulsada de Zumaia, junto con su padre Telesforo Beristain, su madre Josefa Azurza Mugica y sus hermanas Carmen y María Cruz, por no ser la familia afecta al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

221. BERISTAIN ZUBIA, TELESFORO

Lanbidez maisua; 54 urte zituela Zumaiaetik kanporatu zuten Josefa Azurza Mugica emaztearekin, Mari Cruz eta Carmen alabekin eta Remesar alabaordearekin, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

De 54 años de edad empleado de profesión, fue expulsado de Zumaia junto con su mujer Josefa Azurza Mugica y tres hijos-hijas Mari Cruz Carmen y Remesar (quien es acogida en la familia), por no ser la familia afecta al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

222. BIDASORO IRAUNDEGUI, DEMETRIO

Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen Saseta batailoian. / Tomó parte en la guerra como voluntario del Ejército vasco, formando en el batallón Saseta.

or.

223. BIDASORO IRAUNDEGUI, JOSÉ LUIS

17 urte zituela Zumaiatik kanporatu zuten Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga amarekin, Rufino Bidasoro Sorazu aitarekin eta Juana, José Luis eta Venancio anai-arrebekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 17 años fue expulsada de Zumaia junto con su madre Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga, su padre Rufino Bidasoro Sorazu y sus hermanos Juana, José Luis y Venancio, por no ser la familia afectada al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

224. BIDASORO IRAUNDEGUI, JUANA

24 urte zituela Zumaiatik kanporatu zuten Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga amarekin, Rufino Bidasoro Sorazu aitarekin eta María, José Luis eta Venancio anai-arrebekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 24 años fue expulsada de Zumaia junto con su madre Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga, su padre Rufino Bidasoro Sorazu y sus hermanos María, José Luis y Venancio, por no ser la familia afectada al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

225. BIDASORO IRAUNDEGUI, MARÍA

17 urte zituela Zumaiatik kanporatu zuten Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga amarekin, Rufino Bidasoro Sorazu aitarekin eta Juana, José Luis eta Venancio anai-arrebekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 17 años fue expulsada de Zumaia junto con su madre Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga, su padre Rufino Bidasoro Sorazu y sus hermanos Juana, José Luis y Venancio, por no ser la familia afectada al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

226. BIDASORO IRAUNDEGUI, VENANCIO

7 urte zituela Zumaiatik kanporatu zuten Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga amarekin, Rufino Bidasoro Sorazu aitarekin eta Juana, José Luis eta María anai-arrebekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 7 años fue expulsada de Zumaia junto con su madre Joaquina Iraundegui Aguirrezabalaga, su padre Rufino Bidasoro Sorazu y sus hermanos Juana, María y José Luis, por no ser la familia afectada al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

227. BIDASORO SORAZU, RUFINO

Lanbidez merkataria. Zumaiatik kanporatu zuten familia osoarekin batera, erregimenaren aldekoak ez zirelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren. Gerra amaitzean, erregimenaren aurkarizat jo zuten eta, horregatik, ondasunak desjabetu zizkieten. Gerra garaian, Eusko Gudarosteko gudari izan zen bere borondatez.

Comerciante. Fue expulsado de Zumaia junto con toda su familia, por no ser afectos al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia. Al acabar la guerra quedó señalado como desafecto al régimen por lo que le expropiaron sus bienes. Durante la guerra había sido gudari voluntario en el ejército vasco.

228. BRACAMONTE LAMA, SECUNDINO

159. langile-batailoira bidali zuten. Salamancako ospitale militarrean hil zen, 1940ko martxoaren 15ean. / Fue enviado al 159 batallón de trabajadores. Falleció en el hospital militar de Salamanca el 15 de marzo de 1940.

229. BURGAÑA BELAUSTEGI, HILARIO

Jaiotzez mutrikuarra, Zumaian bizi zen eta EAJko afiliatua zen. Eusko Gudontzidian kabo graduazioa izan zuen eta Zumaiako itsas ordezkartzako kidea zen. Zumaiako portuko zaindarien agintea izan zuen. Itsas zabalean ere ibili zen *Domayo* itsasontzian.

Natural de Mutriku, residente en Zumaia y afiliado al PNV. Era cabo dentro de la Marina Vasca de Guerra siendo miembro de la delegación Marítima de Zumaia. Estuvo al mando de los guardas del puerto en Zumaia. También estuvo destinado en alta mar en el *Domayo*.

230. BURRINEA ARRALDE, SABINA

36 urte zituela Zumaiatik kanporatu zuten Sabina, Ángela eta Bakartxo Romatet Burrinea alabekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 36 años fue expulsada de Zumaia, junto con sus 3 hijas Sabina, Ángela y Bakartxo Romatet Burrinea, por no ser la familia afectada al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tomaron el control de Zumaia.

231. BURUGAIN RECAOLA, RITA

31 urte zituela Zumaia kanporatu zuten María Cruz, José Ramón eta Manuel seme-alabekin batera, familia erregimenaren aldekoa ez zelako. Haurdun zegoenez, haurdunaldi aurreratuan, eta Juan semea ihesaldi betean jaio zen. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 31 años fue expulsada de Zumaia junto con sus hijos María Cruz, José Ramón y Manuel, por no ser familia afectada al régimen. Embarazada en estado avanzado, su hijo Juan nacería en plena huida en pleno periplo. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tomaron el control de Zumaia.

C**232. CARBAJO, SANTIAGO**

Gerra Zibilean parte hartu zuen, karabinero mobilizatua izan zen. / Tomó parte en la guerra civil como carabinero movilizado.

233. CARDENAS GALARRAGA, ANTONIO

Zumaia alde egin zuen, eta ezin izan zuen itzuli 1938ko maiatzaren 13a arte; Zumaia ordezkaritza militarrek "gorrien aldetik etorria" sailkatu zuen.

Abandonó Zumaia y no pudo volver hasta 13 de mayo de 1938, siendo clasificado por la delegación militar de Zumaia como "procedente del campo rojo".

234. CEARRETA URRUZUNO, JUAN

San Andres batailoiko gudaria, jaiotzez Erandiokoa (Bizkaia), Miren Urbietta Albizu zumaiarrarekin ezkondua zegoen. Figueresen (Girona) atxilotua egon zen.

Gudari del batallón San Andres, Natural de Erandio, Bizkaia, estaba casado con Miren Urbietta Albizu, natural de Zumaia. Estuvo prisionero en Figueres, Girona.

235. CEARRETA URRUZUNO, RAMÓN

Zumaia hau borrokan hil zen, 1937ko maiatzaren 29an, baina ez dakigu non. San Andrés batailoiko gudaria zen.

Este vecino de Zumaia fue muerto en combate el 29 de mayo de 1937; desconocemos el lugar. Era gudari del batallón San Andrés.

236. CELAYA LECUE, VICTORIANO

Lanbidez industria-ingeniaría; ideologiaz abertzalea. 1917ko maiatzaren 25ean, Zumaia udal-barrutiko hautagai aukeratu zuten. 1937ko irailaren 11n, 25.000 pezeta isun ekonomikoa ezarri zioten. Zumaia, Hernani eta Elgoibarko ondasunak ere desjabetu zizkioten.

De profesión ingeniero industrial y filiación nacionalista. El 25 de mayo de 1917 fue proclamado como candidato por el distrito de Zumaia. Fue condenado el 11 de septiembre de 1937 a una sanción económica de 25.000 pesetas. También le expropiaron sus bienes en Zumaia, Hernani y Elgoibar.

237. CENDOYA ITURRIA, JOSÉ MARÍA

Zumaia alde egin zuen eta ezin izan zuen 1938ko maiatzaren 13a arte itzuli; Zumaia ordezkaritza militarrek "gorrien aldetik etorria" sailkatu zuen.

Abandonó Zumaia y no pudo volver hasta 13 de mayo de 1938, siendo clasificado por la delegación militar de Zumaia como "procedente del campo rojo".

238. CENDOYA ITURRIOZ, GREGORIA

31 urte zituela Zumaia kanporatu zuten familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zuten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren. Ezin izan zuen itzuli 1938ko maiatzaren 23a arte; Zumaia ordezkaritza militarrek "gorrien aldetik etorria" sailkatu zuen.

A los 31 años de edad fue expulsada de Zumaia, por no ser la familia afectada al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tomaron el control de Zumaia. No pudo volver hasta el 23 de mayo de 1938, siendo clasificada por la delegación militar de Zumaia como "procedente del campo rojo".

239. CENDOYA LASA, ANTONIO

Zumaia alde egin zuen, eta 1938ko apirilaren 20a arte ezin izan zuen itzuli; Zumaia ordezkaritza militarrek "gorrien aldetik etorria" sailkatu zuen. Gerra-kontseiluan "matxinadari laguntzen parte hartu izana" leporatu zioten, baina azkenean kasua artxiatu egin zuten eta 1937ko abuztuaren 13an behin betiko askatu zuten, Bilbon.

or.

Abandonó Zumaia y no pudo volver hasta el 20 de abril de 1938, siendo clasificado por la delegación militar de Zumaia como "procedente del campo rojo". Se le acusó de "participante en auxilio a la rebelión" en Consejo de Guerra, siendo su caso finalmente sobreesido y puesto en libertad definitiva el 13 de agosto de 1937 en Bilbao.

240. CENDOYA LASA, JOSÉ

Gerra Zibilean parte hartu zuen; Eusko Gudarosteko boluntarioa izan zen Ingeniarien 2. batailoian. Atxilotu zutenean gerra-kontseilua egin zioten Bilbon, 1937ko abuztuaren 17an, matxinadari laguntzeaz salatuta.

Tomó parte en la guerra civil como voluntario del Ejército vasco en el batallón Ingenieros 2. Una vez capturado se le encausó en un consejo de guerra en Bilbao el 17 de agosto de 1937, en el que fue acusado de auxilio a la rebelión.

241. CENDOYA LASA, MARCOS

Lanbidez peoia; 33 urteko zumaiar hau Gipuzkoan mobilizatu zuten, gerra-komisariotzaren barnean. Santoñan atxilotu eta gerra-kontseilua egin zioten, 1937ko abenduaren 1ean. Epaian 12 urte eta egun bateko zigorra ezarri zioten, matxinadari laguntza ematea delituagatik; zigorra betetzeko, Espetxeen Zerbitzu Nazionalaren buruzagitzaren esku utzi zuten. Hasieran El Duesoko (Kantabria) espetxean sartu bazuten ere, 1938ko abuztuaren 18an Cadizeko Puerto de Santa María espetxera bidali zuten. Handik Huelvara bidali zuten 1938ko abenduaren 5ean, eta handik berriz, Marokora, 1939ko azaroaren 9an, eta han armadaren esku utzi zuten.

De 33 años de edad, peón de profesión y natural de Zumaia, Estuvo movilizado por Gipuzkoa dentro de la comisaria de guerra. Capturado en Santoña, fue puesto a disposición de la jefatura del servicio Nacional de Prisiones para cumplir condena, impuesta por Consejo de Guerra celebrado en Santoña por sentencia de 1 de diciembre de 1937, a la pena de 12 años y un día por un delito auxilio a la rebelión. Procedente de colonia penal del Dueso, ingresó el 18 de Agosto de 1938 en la Prisión de Puerto de Santa María, Cádiz. Trasladado el 5 de diciembre de 1938 a Huelva, volvió a ser trasladado el 9 noviembre de 1939 a disposición del Ejército en Marruecos.

242. CENDOYA LASA, SALVADOR

Gipuzkoako Aldundiko langile zela UGTn afiliatu zen "Aldundiak behartuta marxisten agintaldian; agintaldi horren hasieran zaintzak egitera behartu zuten herri horretan udaletxean emandako bi kanoiko eskopetekin; lan horretan, zenbait auzotari gelditzeko esan eta udaletxean azaltzeko agindua eman zion, baina handik laster aske irten ziren; Bilbora ihes egin zuen, Salsamendi batailoian egin zuen soldaduska bere kinta deitu zutenean; Montellanoko (Bizkaia) frontean zegoela, 1937ko uztailaren 1ean, Indar Nazionalen aldera igaro zen arma eta munizioekin, haiekin tirorik egin gabe".

Salvador Cendoya Lasak izandako papera zehazterakoan, gerra-kontseiluak zehaztu zuen auzipetuaren jokabidea "marxisten aldean egon zenean miliziano soilarena izan zela, ez zela ohiko delituen arduraduna izan, ezin baitzaio hori leporatu zaintza-lanetan ibili izanagatik udaletxean aurkezteko agindua betetzea, interesatuentzat ez baitzuen inolako ondoriorik izan, eta haiei ez baitzien inolako irainik edo gehiegikeriarik egin; jokabide hori izatera behartua izan zen Aldundiko langilea zelako". Arrazoï horregatik absolutu egin zuten 1938ko azaroaren 24an eta aske utzi zuten, baina errekrutamendu-bulegoaren esanetara, mobilizatutako deialdi batekoa zelako.

Siendo trabajador de la Diputación de Guipúzcoa, se afilió a la UGT "por imposición de ésta durante la dominación marxista al principio de la cual fue llamado por la misma y obligado a hacer guardias en dicho pueblo con escopetas de dos cañones que le proporcionaron en ayuntamiento en cuyo cometido dio el alto a varios vecinos notificándoles la orden de presentarse en la casa consistorial de la que salieron en libertad al poco rato; y huido a Bilbao, se incorporó al ser llamada su quinta al Batallón Salsamendi con el que se pasó con armamento y municiones por el frente de Montellano (Vizcaya) en 1 de Julio de 1937 a las Fuerzas Nacionales sin haber entrado en fuego con ellas".

A la hora de determinar el papel juzgado por Salvador Cendoya Lasa, el consejo de guerra determinó que la actuación del procesado en el tiempo que permaneció en la zona "marxista fue de miliciano no destacado ni responsable de delitos comunes, pues no puede estimársele como tal por el hecho de haber cursado en las funciones de guardia que prestaba, una orden de presentación al ayuntamiento que no tuvo trascendencia para los interesados a quienes no hizo objeto de vejamen (sic.) ni atropello de ninguna clase; y como dicha actuación fue obligada por su condición de empleado de la Diputación". Por este motivo fue absuelto el 24 de noviembre de 1938, quedando en libertad. y a disposición de la caja de reclutar, por pertenecer a un reemplazo movilizado.

243. CENDOYA SORAZU, JOSÉ MARÍA

20 urterekin erreketen sartu zen Txapel Gorrien graduazioarekin, eta San Ignacio tertziara igorri zuten. 1938ko abuztuaren 3an hil zen, Zornotzako frontean jasandako zaurien ondorioz.

Con 20 años de edad se alistó como requeté con la graduación de Boina Roja, destinado en el tercio de San Ignacio. Falleció el 3 de agosto de 1938 por las heridas sufridas en el frente de Amorebieta.

244. CHABARRI ORMILUGUE, EDUARDO

Lanbidez abokatua; zumaiarra eta ezkongabea; 48 urte zituela "euskal separatismoaren propagandista aktiboa izatea" leporatu zioten. "Gorri-separatisten gobernuaren agintaldian, Bilboko ordezkari herriko epaile kargua izan zuen 1936ko azarotik, bere borondatez, eta 1937ko urtariletik karguaren jabe izan zen; bere postutik matxinada gorri-separatista lagundu zuen... gerra-egoeraren bando adierazia, eta delitu horren arduradunak dira egile gisa, zuzeneko parte-hartze material eta borondatezkoagatik". Tribunal militarrek kondenatu zuen bizi bitarteko espetxealdira "matxinadari atxikitzea delitu burutuaren" egile izateagatik, eta

ZUMAIA 1936-1945

Conculcación de los Derechos Humanos y represión durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo

“matxinada marxistagatik Estatuari eta norbanakoei eragindako kalte-galerak” Estatuari ordaintzera. Erregimenaren aurkaritzat jo zuten eta, horregatik, ondasunak desjabetu zizkieten.

Vecino de Zumaia, de 48 años de edad, abogado y soltero, fue acusado de *“ser propagandista activo del separatismo vasco. Durante el dominio del Gobierno rojo- separatista voluntariamente despeño desde el mes de Noviembre de 1936 al cargo de Juez Municipal suplente de Bilbao y desde Enero de 1937 con carácter de propietario presentando de esta manera apoyo desde su puesto a la rebeldía rojo-separatista.....bando declarado (sic) del Estado de Guerra de cuyo delito son responsables en concepto de autores por acto de participación directa material y voluntaria”*. El tribunal militar lo condenó a una pena de reclusión perpetua como autor de *“un delito consumado de adhesión a la rebelión”* teniendo que pagar al Estado *“los daños y perjuicios ocasionados al Estado y particulares por la rebelión marxista”*. Quedó señalado como desafecto al régimen por lo que le expropiaron sus bienes.

245. CHABARRI ORMILUGUE, JUAN

Zumaiaiko EAJko lehendakaria, 1932an. Erregimenaren aurkaritzat jo zuten eta, horregatik, ondasunak desjabetu zizkieten. Presidente del PNV de Zumaia en 1932. Quedó señalado como desafecto al régimen por lo que le expropiaron sus bienes.

246. CHAPARTEGUI DEVA, FERNANDA

43 urte zituela Zumaiatik kanporatu zuten 8 seme-alabekin batera (Juan, Tomás, Ricardo, Gregoria, Florencio, 7 urteko Joseba, 5 urteko Edurne eta urtebeteko Josu Aizpurua Chapartegui), familia erregimenaren aldekoa ez zelako. 1937ko otsailaren 13a eta 14a bitartean kanporatu zituzten, matxinatuen tropek Zumaia kontrolpean hartu ondoren.

A la edad de 43 años fue expulsada de Zumaia junto con sus ocho hijos Juan, Tomás, Ricardo, Gregoria, Florencio, Joseba de 7 años, Edurne de 5 años y Josu de 1 año. Todos ellos con el apellido Aizpurua Chapartegui, por no ser la familia afecta al régimen. La expulsión tuvo lugar entre el 13 y 14 de febrero de 1937, una vez que las tropas sublevadas tuviesen el control de Zumaia.

247. CHAPARTEGUI DEVA, MANUEL

Lanbidez peoia, Solidaridad de Obreros Vascos-eko afiliatua. / Peón afiliado a Solidaridad de Obreros Vascos.

248. CHAPARTEGUI GOENAGA, AGUSTÍN

Zumaiarra; aurrekari ezkertiarak izateaz eta UGTko afiliatua izateaz, salatu zuten FET y de las JONSeko arduradunek. 1939ko otsailaren 4an espetxeratu zuten. Era berean, herriko batzordeko partaide izatea eta posta egiteko beruna konfiskatzea leporatu zioten. German Ceballos lekukoak esan zuen Agustín armaturik ikusi zuela, baina miaketetan edo atxilotketetan parte hartu gabe. 1940ko martxoaren 4an behin betiko aske utzi zuten eta haren kasua artxibatu.

Vecino de Zumaia. Fue acusada de tener antecedentes izquierdistas, por estar afiliado a la UGT, según los encargados de la FET y las JONS. Será encarcelado el 4 de febrero de 1939. Será acusado del mismo modo de formar parte del Comité local y de requisar plomo para dedicarlo a la construcción de posta. Otro testigo, Germán Ceballos, dijo que vio a Agustín armado pero sin participar en registros o detenciones. El 4 de marzo de 1940 fue puesto en libertad definitiva archivando su caso.

249. CHAPARTEGUI GOENAGA, ESTEBAN

Zumaiar igeltsero hau Agrupación de Oficios Varios de SOV-eko idazkari agertzen da 1933an. UGTko eta Unión Republicanako afiliatua, gerra garaian parte-hartze aktiboa izan zuen UHPren milizietan. Atxilotu eta Donostiako espetxean sartu zuten; 28 urte zituela gerra-kontseilua egin zioten, matxinada militarra delitua leporatuta. 1937ko abenduaren 4ko epaian heriotza-zigorra kondenatu zuten, baina 30 urteko espetxealdiagatik konmutatu zioten. 1948ko ekainaren 5ean askatu zuten. Egintza hauengatik salatu zuten: *“Esteban Chapartegui prozesatua Zumaiian zegoen matxinada marxista hasi zenean, bere borondatez ordena publikoko miliziano moduan ibili zen lehenengo egunetan, eta Azpeitian milizianoen erregimentu bat antolatu zutenean, bere borondatez eman zuen izena han; hainbat frontetan ibili zen eta tiroketa bortitzak izan zituen gure tropekin eta, izandako hildakoen-gatik bere batailoia desantolatuta geratu zenean UHP izenekora igaro zen; han kabo graduazioarekin ibili zen metrailadoreen sailean eta Gorbeako ekintzaren ostean sarjentu izendatu zuten; gerra-ekintzetan jarraitu zuen eta gerora Zornotzara joan zen; han teniente izendatu zuten eta sail bat bere agindutara izan zuen; graduazio horrekin Bilbora joan zen, bere batailoiarekin eta Santander alderantz atzera egin zuten; han Aller lurrunontzian ihes egiten saiatu zen, baina gure Indarrak iristean atxilotu egin zuten. Prozesatu hau Unión Republicanako eta UGTko afiliatua zen 1933tik, teniente lanpostuan guztira 1000 pezetako ondarsuna jaso zuen, gutxi gorabehera. Onartutako gertaerak”*.

Este vecino de Zumaia y albañil de profesión figura como secretario de Sindicatos de Oficios varios en 1933. Afiliado a la UGT y a Unión Republicana, durante la guerra tomó parte activa dentro de las Milicias de la UHP. Tras su detención en la prisión de San Sebastián, se enfrentó a un consejo de guerra con 28 años, donde se le acusó de un delito de rebelión militar. Fue condenado por sentencia de 4 de diciembre de 1937 a una pena de muerte, conmutada por una pena de treinta años de prisión. No sería puesto en libertad hasta el 5 de Junio de 1948. Los hecho por los que será acusado serán los siguientes: *RESULTANDO que el procesado Esteban Chapartegui, que se hallaba en Zumaia al iniciarse la rebeldía marxista, prestó servicios voluntarios como miliciano de Orden Público en tal lugar en esos primeros días de aquella y al organizarse un regimiento de milicias en Azpeitia, se alistó (sic) voluntariamente en el mismo actuando en diversas frentes y sosteniendo violentas tiroteos con nuestras Tropas y después de la desorganización de su Batallón por las bajas sufridas, pasó al denominado U.H.P actuando en él como Cabo en la sección de ametralladoras y tras la acción del Gorbea fue promovido a Sargento, continuando su actuación en acciones de guerra y trasladándose posteriormente a Amorebieta, donde fue promovido al grado de Teniente y llegando a mandar sección, pasando después a Bilbao siempre con tal graduación y con su Batallón y replegándose hacia Santander de*

or.

donde pretendió huir en el vapor rojo "Aller" al aproximarse nuestras Fuerzas, siendo apresado. La filiación de este procesado fue la unión Republicana desde 1933 y la de la U.G.T desde la misma fecha, percibiendo en su empleo de Teniente el haber aproximado de 1000 pesetas. Hechos aprobados.

250. CHAPARTEGUI GÓMEZ, JOSÉ

Zumaiarra eta lanbidez marinela. 1938ko uztailaren 11n, 29 urte zituela, Donostian 330/37 ohiko gerra-kontseilua egin zioten matxinadari atxikitzea delituagatik; 1938ko abuztuaren 1eko epaian 30 urteko zigorrera kondenatu zuten. Donostiako espetxean sartu zuten 1938ko irailaren 19an, Tolosako barruti judizialeko espetxetik eramanda. Geroago, 1938ko azaroaren 25ean, Burgoako espetxera bidali zuten eta han egon zen 1939ko azaroaren 1a arte. Orduan, Alcalá de Henareseko (Madril) tailer publikoetara eraman zuten, gatibu-lanetara.

A la edad de 29 años, marino de profesión y natural de Zumaia, fue sentenciado por Consejo de Guerra Ordinario N° 330/37, celebrado en San Sebastián el 11 de julio de 1938 por el delito de adhesión a la rebelión, Resultó condenado por sentencia de 1 de agosto de 1938 a la pena de 30 años. Ingreso en la cárcel de San Sebastián el 19 de septiembre de 1938 procedente de la prisión del partido de Tolosa. Sería luego trasladado el 25 noviembre de 1938 a la prisión de Burgos, donde estuvo hasta el 1 de noviembre de 1939. Entonces fue transferido a los Talleres públicos de Alcalá de Henares a trabajos forzados.

251. CHASCO FERNÁNDEZ, SANTIAGO

Lanbidez treneko burua, Gerra Zibilean ondorioz erregimenaren aurkarizat jo zuten eta, horregatik, kaleratu eta atxilotu egin zuten. 1937ko martxoaren 11n erabaki zuten kontzentrazio-esparru batean atxilotuta jarraitu behar zuela. Ondarretako espetxean giltzapetuta egon zen 1938ko maiatzaren 30a arte. Orduan, behin betiko askatasun egoeran gelditu zen, eta jarduketak epaile militarri eman zitzaizkion.

Jefe de tren, como consecuencia de la Guerra Civil quedó señalado como desafecto al régimen por lo que fue despedido y detenido. El 11 de marzo de 1937 se determinó que tenía que seguir recluido en un campo de concentración. Estuvo recluido en la cárcel de Ondarreta hasta el 30 de mayo de 1938. Quedó entonces en situación de libertad definitiva, pasando las actuaciones al juez Militar.

252. CHURRUCA SALEGUI, JOSÉ MARÍA

Erregimenaren aurkarizat jo zuten eta, horregatik, espetxeratu egin zuten. Espetxean hil zen istripu baten ondorioz ("bidaiatzen ari zen kamionetak harrapatu zuelako, eta jardundakoaren emaitzak dio gertaera ezusteko istripu baten ondorio izan zela eta ez zela inoren erruagatik edo axolagabekeriagatik izan... Instrukzio-epailea. Burgosen, 1938ko uztailaren 28an").

Quedó señalado como desafecto al régimen por lo que fue encarcelado, falleciendo en prisión a causa de un accidente ("por haber sufrido un atropello del que fué víctima por la camioneta en que viajaba y resultado de lo actuado que el hecho fué debido a un accidente casual y fortuito en el que no intervino culpa ni negligencia por parte de nadie (...). Juez Instructor. Burgos 28 de Julio de 1938").

253. CINCUNEGUI AMAS, GUILLERMO

Erreketea izan zen. / Requeté.

254. CINCUNEGUI AMAS, JOAQUÍN

Lanbidez arotza; Solidaridad de Obreros Vascos-eko afiliatua. / Carpintero afiliado a Solidaridad de Obreros Vascos.

255. CORTA URIBARREN, JACINTO MARÍA

Lanbidez enplegatua; 45 urte zituela, faltsutzea eta iruzurra egitea leporatu zizkieten. Larrinagako espetxean giltzapetuta zegoen bitartean, instrukzio-epaitegiaren esanetara zegoen. 1943ko maiatzaren 29ko epaian, espetxealdi handiko zigorra (2 urte eta 8 hilabete) ezarri zioten.

